

BALOREZKO PROPOSAMENA

Aero Chaleko Pro proiektuaren balorezko proposamena argia eta zehatza da: bero handia jasaten duten langileen lan-baldintzak hobetzea, segurtasuna, erosotasuna eta errendimendua handituz. Espainian, eta bereziki Donostian eta inguruan, gero eta ohikoagoak dira tenperatura altuak, eta horrek zuzenean eragiten du aire zabalean edo espazio beroetan lan egiten duten pertsonen osasunean eta produktibitatean.

Gure produktua jadanik existitzen den Japoniako aireztatutako txalekoen ideia batean oinarritzen da, baina berrikuntza nagusia da hemengo lan-baldintzetara egokituta dagoela. Donostiako klima hezea, enpresetako lan-ordutegi luzeak eta lan fisiko handia kontuan hartuta, Aero Chaleko Pro-k esperientzia errealista eta erabilgarria eskaintzen du. Ez da soilik produktu teknologiko bat, baizik eta lan-ingurunearen hobekuntza zuzena.

Txalekoak aireztapen sistema integratua dauka, gorputz-tenperatura erregulatzen laguntzen duena, bero kolpeak saihestuz eta nekea gutxituz. Horri esker, langileek lanaldi luzeak baldintza hobeetan egin ahal izango dituzte. Enpresentzat, horrek esan nahi du baja mediko gutxiago, errendimendu handiagoa eta langileen ongizatearekiko konpromisoaren irudia hobetzea.

Balio erantsia ere badago produktua garatzeko moduan: guk ez dugu txalekoaren fabrikazio osoa egiten, baizik eta bi enpresa espezializaturen arteko elkarlana bideratzen dugu (txaleko teknikoak egiten dituen enpresa bat eta aireztatze-makinak egiten dituen beste bat). Gure lana bi osagaiak modu eraginkorrean bateratzea da, kostuak optimizatuz eta kalitate altua mantenduz.